

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

IVAP

EBAZPENA, 2018ko uztailaren 23koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzen kontra aurkeztutako erreklamazioak ebatzi eta behin-behineko emaitza horiek behin betiko bihurtzen dituen.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak, 2018ko urtarrilaren 26ko Ebazpenaz (EHAA, 2018/02/12; 30. zk.), hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako deia egin zuen.

Deialdi honetako ohiko azterketa gainditu zuten azterketarien behin-behineko zerrenda Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2018ko ekainaren 25eko Ebazpenaz (EHAA, 2018/06/27; 123. zk.) argitaratu zen.

Zerrenda honen kontra erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, aurkeztutakoak aztertu egin dira. Gauzak horrela,

EBATZI DUT:

1.- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzen kontra jarri eta onartu diren azterketarien erreklamazioen emaitzen argitalpena agintzea www.ivap.euskadi.eus helbideko Euskara atalaren Hizkuntza-eskakizunak azpiatalean.

2.- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzen kontra aurkeztutako beste erreklamazio guztiak gaitzestea.

3.- 2018ko ekainaren 25eko Ebazpenaz argitaratutako behin-behineko emaitzak behin betiko bihurtzea.

4.- Ebazpen honetan xedatutakoaren kontra gora jotzeko errekurtoa ezarri ahal izango da Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuaren aurrean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 23a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN